ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

durango

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

2025eko urtarrilaren 14a · 14 de enero del 2025

**LEHENDAKARIA ·** Presidente
Paule Sanchez Arieta-Araunabeña(EAJ/PNV)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Iker Txertudi (EAJ/PNV)
Asier Perugorria Garcia (EAJ/PNV)
Carlos David Garcia Fernandez (PP)
Sheila Gonzalez (DES-SVD)
Nagore Lozano Zarandona (EHBildu-Durango)
Martin Loizate Sarrionandia (EHBildu-Durango)
Juan Antonio Bueno Moreno (EHBildu-Durango)
Jorge Varela Dorrio (HE-ID)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Arantza Barrenetxea (EAJ/PNV)

**GONBIDATUAK** – INVITADOS

**KUDEATZAILEA ·** Gerente
Asier Bikandi

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUTA · INVITADO/A A INSTANCIAS DEL PRESIDENTE**

**IDAZKARIA** · Joana Rezola, Administrativa de Astarloa Kulturgintza/ko Administraria

| | |
|---|---|
| Tokia · Lugar: | Batzar Gela |
| Izaera · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| Hasiera ordua · Hora de inicio: | 17:00 |
| Amaiera ordua · Hora Final: | 17:30 |

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO BATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

Guztiak ados daude aktarekin, beraz, onartutzat ematen da.

UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR.

Todos estan de acuerdo con el acta, por lo que se da por aprobada.

BI.-PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA.

Batzarrerako deialdiarekin batera, 2024ko abenduan Presidenteak sinatutako ebazpen guztiak jasotzen dituen dokumentu bat bidali da.

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak Asier Bikandiri hitza ematen dio hauen gainean azalpenak emateko.

Asier Bikandi jaunak dio ebazpenetan ez dagoela ezer berizik, betiko ebazpenez gain. Fakturak, kontratu txikiak... Kontratu txiki bat dago Kurutziagako Gurutzea 3Dan egiteko, izan ere, dirulaguntza bat eman ziguten proiektu horretarako. Horrez gain, kontratu pribatuak daude ere, San Agustinen egiten diren ekitaldiak kontratatzeko... Norbaitek zerbait gehiago argitzea nahi badu, galde dezala.

Nagore Lozano Zarandona andereak dio, kreditu habilitazio bat dagoela, Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru batena, eta galdetzen du ea zerena den.

Asier Bikandi jaunak dio, hori aipatu dugun Kurutzesantuko dirulaguntzaren habilitazioa dela. Astarloako aurrekontuan ez baitzegoen aurreikusita dirulaguntza hori.

Jorge Varela Dorrio jaunak galdetzen du ea zerenak diren Telefonica-ko fakturak.

Joana Rezola andereak dio Museoko alarmarenak direla.

Jorge Varela Dorrio jaunak dio kontratu bat dagoela telekomunikazio zerbitzu guztiak jasotzen dituena, eta ez daki hau ezin den aldatu edo zer. Baina klaro, horrez gain, zerbait rekurrentea bada, lizitaziora atera beharko litzateke.

Asier Bikandi jaunak dio hau Jesusek eramaten zuela. Gauza hauek zentralizatuta daude, eta Udaletik eramaten dira. Beraz, guk esaten digutena egiten dugu. Informatikako zerbitzuburu berria datorrenean hau argitu ahalko dugu.

DOS.- DACION DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENCIA.

Junto con la convocatoria de la reunion, se ha enviado un documento con todas las resoluciones firmadas por la Presidencia en el mes de diciembre del 2024.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena le da la palabra a Asier Bikandi para que de las correspondientes explicaciones.

Don Asier Bikandi dice que en las resoluciones no hay nada especial, a parte del tipo de resoluciones que suele haber habitualmente. Facturas, contratos menores... Hay un contrato menor para hacer el proyecto de la Cruz de Kurutziaga en 3D, ya que nos dieron una subvencion para realizar ese proyecto. Tambien hay contratos privados, para contratar algunos de los espectaculos de San Agustin. Si alguien quiere que explique algo mas, que lo pregunte.

Dona Nagore Lozano Zarandona dice, que hay una habilitacion de credito, de un dinero recibido del Gobierno Vasco, y pregunta a ver de que es.

Don Asier Bikandi dice que eso es la subvencion a Kurutzesantu que hemos mencionado anteiormente. No estaba prevista en el presupuesto de Astarloa, y hemos tenido que habiltiarlo.

Don Jorge Varela Dorrio pregunta a ver de que son las facturas de Telefonica.

Dona Joana Rezola dice que son de la alarma del Museo.

Don Jorge Varela dice que hay un contrato que recoge todos los servicios de telecomunicaciones, y no sabe si es que esto no se puede cambiar. Pero claro, ademas, si es algo que va a ser recurrente en el tiempo, habr a que sacarlo a licitacion.

Don Asier Bikandi dice que todo este tema lo llevaba Jesus. Estas cosas estan centralizadas, y se llevan desde el Ayuntamiento. Por lo tanto, nosotros hacemos lo que nos dicen. Cuando venga el nuevo jefe de servicios de informatica podremos aclarar todo esto.

HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak dio, kudeaketa txostena deialdiarekin batera bidali zela. Teknikariek ez dute ezer berezirik aipatzeko kudeaketa txostenean agertzen denaz gain. Baina norbaitek galderarik badu, teknikariei bidaliko dizkiegu eta hurrengo batzarrean erantzuten dute.

Inork ez du galderarik.

LAU.- DURANGOKO UDALAREN "ASTARLOA KULTURGINTZA" ERAKUNDE AUTONOMOA BIZKAIKO FORU KONTRATAZIOAREN ZENTRALARI ATXIKITZEKO HITZARMENAREN ONARPENA

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak hitza ematen dio Asier Bikandiri.

Asier Bikandi jaunak dio Udalak akordio marko bat duela Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta berriztu egin behar da. Hau da, akordio marko horretara atxikitu behar gara. Beraz, bozketa bat egin behar da, akordio marko horretara atxikitzen garen erabakitzeko.

Bozkatu egiten da, eta ahobatez erabakitzen da akordio marko horretara atxikitzea.

BOST._KONTSEILU ERREKTOREAK ONARTUTAKO OHIKO BILKUREN ALDIKOTASUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak hitza ematen dio Asier Bikandiri.

Asier Bikandi jaunak dio, Udaleko Osoko Bilkura egunez aldatzen danean, normalean guk ere gure batzordea aldatzen dugu. Baina egoera edo aldaketa hori ez dago formaltasunez jasota inon. Beraz, formaltasun hori emateko aldaketa horiei, Kontseilu Errektoreak salbuespen egoera hori onartu behar du. Beraz, orokorrean batzordeak izaten dira hilabeteko bigarren asteartean 17:00etan. Baina, adibidez, aste santuko oporrak direla eta, udaleko Osoko Bilkura

TRES.- INFORME DE GESTION

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice que el informe de gestion se envio junto con la convocatoria. Las tecnicas no tienen nada especial que contar, a parte de los datos que aparecen en el informe de gestion. Pero si alguien tiene preguntas para hacer, se las trasladaremos a las tecnicas y responderan en la siguiente reunion.

Nadie tiene preguntas.

CUATRO.- APROBACION DEL CONVENIO DE ADHESION DEL ORGANISMO AUTONOMO "ASTARLOA KULTURGINTZA" DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO A LA CENTRAL DE CONTRATACION FORAL DE BIZKAIA.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena le da la palabra a Asier Bikandi.

Don Asier Bikandi dice que el Ayuntamiento tiene un acuerdo marco con la Diputacion Foral de Bizkaia, y hay que renovarlo. Es decir, nos tenemos que adherir al acuerdo marco. Por lo tanto, hay que hacer una votacion por la que se decida si nos adherimos o no.

Se realiza la votacion, y se decide por unanimidad la adhesion al acuerdo marco.

CINCO._PROPUESTA DE MODIFICACION DEL ACUERDO DEL CONSEJO RECTOR REFERIDO A LA PERIODICIDAD DE LAS SESIONES ORDINARIAS.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena le da la palabra a Asier Bikandi.

Don Asier Bikandi dice, que cuando el Pleno del Ayuntamiento cambia de d a, normalmente nosotros tambien cambiamos la Junta. Pero esa situacion, o ese cambio, no esta previsto formalmente en ningun sitio. Por ello, para darle formalidad a esos cambios, es necesario que la Junta apruebe esa situacion excepcional. Por lo general, las reuniones de esta Junta son el segundo martes de cada mes a las 17:00. Pero, por ejemplo, si por las vacaciones de semana

mugitzen bada, orduan gure batzordea ere mugitu beharko da. Beraz, hori da bozkatu behar dena.

santa, el Pleno del Ayuntamiento se cambia de d a, entonces nuestra Junta tambien habra que cambiarla. Por lo tanto, hay que votar eso.

Paule Sanchez Arieta-Araunabenak dio bozkatzeko unea dela.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice que es el momento de votarlo.

**Ahobatez** onartzen da.

Se aprueba por **unanimidad.**

SEI._ GALDERAK ETA ESKAKIZUNAK

SEIS._ RUEGOS Y PREGUNTAS

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak dio, aurreko batzarrean, Jorgek Plateruenako klimatizazioaren inguruko galdera bat egin zuela. Kultiba enpresari bidali nion bai galdera hori, baita eragile edo talde ezberdinek egindako ekarpenak. Esan digutenez, aste honen bukaeran edo hurrengoaren hasieran, ekarpen guzti horiek landuko dituzte, eta lanketa hori helaraziko digute. Hau esanda, bestelako galdera edo eskaerarik balego, orain da momentua.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice que, en la reunion anterior, Jorge hizo una pregunta sobre la climatizacion de Plateruena. Esa pregunta, junto a todas las demas aportaciones que se hicieron sobre el proyecto, se las hemos trasladado a la empresa Kultiba. Por lo que nos han dicho, van a trabajar sobre todas las aportaciones, y a finales de esta semana o principios de la siguiente nos enviaran ese trabajo. Dicho esto, si hay mas preguntas o solicitudes, este es el momento.

Martin Loizate Sarrionandiak dio, urteko azken bertso saioa Plateruenan egiten dela, eta urte honetan, azken momentuan tokiz aldatu zen. Jakin nahi du zergaitik.

Don Martin Loizate Sarrionandia dice que, la ultima sesion de bertsoz del ano se suele hacer en Plateruena, y este ano, se cambio de lugar en el ultimo momento. Quiere saber porque.

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak dio ebakuazio plana dela eta izan zela. Badirudi Plateruenan 200 bat pertsonarentzako tokia dagoela, eta sarrerak salduta zeuden 300 bat pertsonarentzako. Beraz, azken momentuan erabaki zen San Agustin eskaintzea saioa aurrera atera ahal izateko.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice, que fue por el plan de evacuacion. Parece ser que en Plateruena hay espacio para unas 200 personas, y se vendieron entradas para unas 300 personas. Por lo tanto, en el ultimo momento se decidio ofrecerles San Agust n para poder llevar a cabo el evento.

Asier Bikandik dio, Plateruenan jendeak aulkiak jartzen zituela, eta ebakuazio irteerak blokeatu egiten zirela. Beraz, enpresa bati eskatu genion, Bulego Teknikoarekin batera, informe bat egitea esanez zenbat aulki sartu ahal diren, eta zein lekutan, ebakuazio plana bete ahal izateko.

Don Asier Bikandi dice, que en Plateruena la gente pon a sillas, y bloqueaban las salidas de evacuacion. Por ello, pedimos a una empresa, que junto con la Oficina Tecnica, hiciesen un informe diciendo cuantas sillas pueden ponerse, y en que lugares, para poder cumplir con el plan de evacuacion.

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak dio, neurri horiek kointziditu zutela ekitaldi horrekin, eta sarrerak salduta zeudenez, irtenbide bat bilatu behar izan genuen.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice que la implantacion de esas medidas coincidieron con ese evento, y como las entradas ya estaban vendidas, se tuvo que buscar una alternativa.

Martin Loizate Sarrionandiak dio eskaera bat duela. Durangon badaude zenbait toki hitzaldiak,

Don Martin Loizate Sarrionandia dice que quiere hacer una solicitud. En Durango hay numerosos

ikuskizunak, ekitaldiak… egiteko. Baina, zaila da, toki guztiak ezagutzen ez badituzu, horien existentziaren inguruan jakitea. Baita espazio horiek eskatzeko prozeduren inguruan, aforoen inguruan, prezioen inguruan… jakiteko. Orduan, ondo egongo litzateke gidatxo bat edukitzea, informazio guzti hori jasotzeko, eta argi ikusi ahal izateko.

sitios para hacer conferencias, espectaculos, eventos… Pero, si no se conocen todos los sitios, es complicado saber de su existencia. Tambien para saber sobre la forma de reservarlos, sus aforos, sus precios… Entonces, estar a bien tener una gu a, en la que se recoja toda esa informacion, y poder verla con claridad.

Asier Bikandi jaunak dio, guk, erakunde autonomo moduan, espazio batzuk ditugula gure xedeetarako. Baina esan daiteke, guk ezin dugula erabaki espazio horiek beste gauza batzuetarako erabiltzen diren, izan ere, espazioen jabetza Udalarena da. Orduan, batzuetan espazioak eskatzen dira, baina ez dira eskatzen gure xedeak betetzeko, eta kasu horietan, erabakia jabearena da, hau da, Udalarena. Eta guk, erakunde autonomo bezala, espazioa atxikituta daukagu, eta kudeatu ahal dugu, gure helburuak betetzeko. Beraz, ondo egongo litzateke Udal mailan horrelako gida edo katalogo bat egitea. Guk, Astarloa mailan, egin genezake ere gida bat, baina argi geratu behar da espazio horiek bakarrik utziko direla gure xedea betetzeko.

Don Asier Bikandi dice que nosotros, como organismo autonomo, contamos con algunos espacios para cumplir con nuestros objetivos. Pero se podr a decir, que nosotros no podemos decidir si esos espacios se utilizan para temas que se salen de nuestros objetivos, ya que, el propietario de esos espacios es el Ayuntamiento. A veces, se solicitan esos espacios para temas que no tienen que ver nuestros objetivos, y en esos casos, el que decide es el propietario del espacio, es decir, el Ayuntamiento. Y nosotros, como organismo autonomo, tenemos cedido el espacio, y podemos gestionarlo, solo para cumplir con nuestros objetivos. Por lo tanto, estar a bien hacer, a nivel municipal, una gu a o catalogo. Nosotros, en Astarloa, tambien podemos hacer una gu a, pero tiene que quedar claro que esos espacios solo podran cederse en nuestras condiciones si es para cumplir con nuestros objetivos.

Martin Loizate Sarrionandia jaunak dio, berak nahi duela, printzipioz, Astarloa mailan, dauden espazio ezberdinak eskatzeko betebeharren taula bat.

Don Martin Loizate Sarrionandia dice, que el quiere, en principio, una tabla que reuna las condiciones que hay para reservar los diferentes espacios de Astarloa.

Paule Sanchez Arieta-Araunabena andereak dio egingo dugula gure artean edukitzeko taula bat, eta hausnartuko dugula gida ofizial bat egitearen inguruan.

Dona Paule Sanchez Arieta-Araunabena dice, que haremos una tabla para compartirla entre nosotros, y que le daremos una vuelta a la posibilidad de hacer una gu a oficial.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo mas asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesion, levantandose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comision doy fe.